

## 8 – MAÑUETA - PTO. DE PEÑACERRADA

(2017-1-28)

### EZAUGARRIAK

**DISTANTZIA:** 15,9 km.  
**DESNIBELA:** + 881 m. / - 359 m.  
**DENBORA:** 5 or. 30´ - 6 or. 00´

Baños de Ebro/Mañueta herriko elizaren ondotik aterata (422m), herria zeharkatu eta pista bat hartuko dugu mahasti artean. Mahastiak ureztatzeko putzu bat dagoen muino batera eramango gaitu. Putzua baino lehenxeago, bideak ezkerretara egiten du, eta beti mahasti artean, A-3214 errepidearen bidegurutzera iritsiko gara. Errepide horretan zati bat egin ondoren, bidegurutze bat ikusiko dugu eskuinaldetik, Samaniego (572m) herri arabar politera eramango gaituena. Herria zeharkatu eta A-124 errepidera aterako gara; kontuz gurutzatu, eta Pr-81 hartuko dugu. Hasieran, Samaniegoko Kristoren basilizaraino doan pista bat da (pic-nic egiteko gune egokia; ura eta eserlekuak daude) (671m). 7,7 km. Aldapa handi batean gora jarraituko dugu Pr-81 xendratik, eta haritz eta ezpel artean Errioxako Balkoira (1015m) iritsiko gara Herrerako portuan (ikuspegi politak Errioxa osora, Demandako mendilerrera eta Urbioi gailurretara).

Errepidearen ondoan doan pista batetik, La Herrerako portuaren gainaldera iritsiko gara, eta handik, bide bat hartuko dugu, eskailera metaliko batzuetatik San Leon tontorrera igotzeko (1.223m). 10,8 kms.

Bideak pasabide ezkutu samar batetik jarraitzen du, eta metro batzuk jaitsi beharko ditugu harkaitz bat libratzeko. Pasabide hori igarota, bide osoa ezpel-baso trinko batetik doa (segurtasunagatik, hobe da aurrean doana bistatik ez galtzea). Pixkanaka, bidea pago eta ezpel artean jaitsez doa, Pr-ren marka hori eta zuriak erakutsiz, eta pista zabal batera iritsiko gara, orientazio-oholtxoak dituena (1.114 m). 11,5 kms.

Pistatik jarraituko dugu pagadi eder batetik barrena, bidegurutze batera iritsi arte. Han, beste pista bat dator Zerraluntxa tontorraren oinera (1.188 m.). Beste bidegurutze batera iritsi arte jarraituko dugu; han, bi norabide hartzen ditu pistak. Aurrera, basotik barrena aldapa handi batean gora, Artxabal gainera doan xendra hasten da (1.168m.), Ataungo osinetik igaroz (zati hori ez gomendagarria denentzat. Gailurretik jaisterakoan, jaisteko bidean jarrita dauden soka finkoak erabili behar dira). Ohizko bideak eskuineko pistatik jarraitzen du. Pistak Artxabal mendia inguratzen du, eta jaitciera-bideko bidegurutzetik igarotzen da, Peñacerrada porturaino jarraitzeko (943m). 15,9 km.